

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Margarita Plazaola Murua

*Urretxu,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Margari Urretxuko Kaminpe baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Urretxuko Donardegi baserrikoa. Urretxuko mojen eskolan ikasi zuen; eta dotrinan ere ibili zen. Hala ere, dotrina erdaraz ematen hasi zirenean, utzi eta etxean ikasi zuen. Bere jaiotetxean denetik zegoen eta inoiz ez zitzaien jana falta izan. Lana ere egin behar izaten zuten, baina Margarik lortzen zuen erromeriatara joateko denbora ateratzea, dantza egitea asko gustatzen baitzitzaion. Herrira ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

Zintak

URR-033

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-10-07
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Burutik zakua hartuta euria zenean

- **Erref:** URR-033/002
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Baserri ona zen Kaminpe. Abere asko zuten, eta klase guztietatik. Lan asko egin behar zen eta ez zegoen erraztasunik arropa aldetik eta. Euria zenean buruan zakua. Gaur bizimodua guztiz aldatuta dago.</p>

Transkripzioa

- Baserria haundia al zan?
- Bai, bai, basarri ona zan. Baiña oso leku onen zeon, karrilletik bertan ta

kamiñoa bertan zeukan, bai. Sail haundik, bai, bai. Ya etxea zaharra zan baiño sail haundik zen. Ganau asko egoten zan, mendiko ganaua eta ardi, ta behor, ta etxen behiak idik eta txerrik eta konejuk, danetio eoten zan.

- Danetio e? Lana're ingo zenduen.
- Bai hoixe, bai hoixe eitten gendula lana baserrin. Ordun ez zeon gaur bezelako kontuik. Gaiñea erreztasunik gaur bezela ez zeon baserrin lana eitteko're bat bea. Ez erropaik, ez soiñeku, ez oiñetakoik, ta ezer'e ez zeon. Hantxe, segi lanen.
- Erropa, ze eramaten zenduen?
- Ze erropa eramaten gendun? Bueno, ba askotan burua zakutik, zakua burutik tapatzeko, o ardi zai edo ibiltzen ziñenen.
- A bai, e? Zakuk, e? Klaro, hor xiraik eta ez zien egongo.
- Zaku fin xamarak. Xiraik eta ez zeon ordun. Ordun ez zeon holako kontuik. Ene, oso [...] kanbiauta dao.

2. "Orduan erregeak baino hobeto bizi gera"

- **Erref:** URR-033/003
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Soineko bakarra zuten jaiegunetarako. "Orain, orduan erregeak baino hobeto bizi gera" dio.</p>

Transkripzioa

- Bueno, nik esaten det oain baiño noraiño aillau behar ote deu, esaten det nik. Guk ordun eukitzen gendiun "veintiuno", entenditzen diazu? Soiñekua baldin bazeon "veintiuno" esaten gendion, zeatik ez gendukan besteik.

- Nola veintiuno?

- Bat. Kanpoa, kalea juteko ta hola, ba jaietan ta behintzet, bat. Ta asten behin, asko ez. Ordun ez zan bate diruik . Bueno, oin bezela, ene, oin bizi gea erregek ordun baiño hobeto bizi gea. Lan eitten duenak eta jubilauta garenak eta. Horik. Horik lanik ez daukienak haik erak jakingo due zer [...]. Baiña guk garai hartatik askotan esaten diogu, gure ahizpa ta biok hemen eoten gea, ta gure aman bizimodua ze izan zan, lana besteik ez zon ein ta diruik ez zon ikusten.

3. Anaia zazpi urtez soldadu

- **Erref:** URR-033/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

<p>Anaia zazpi urtez egon zen soldadu. Lehenengo "gorriekin" joan zen, eta gero berriz "nazionalekin" gerrara eta soldadu. Extremadura aldean ibili zen, eta urik ere ez omen zuten izaten.</p>

Transkripzioa

-Ta gero gaiñea gerratia tokau zitzekun, ta anaia eon zan zazpi urten gerran.

- A bai? hori kontauiazu ba, nola izan zan

- Ba trentaiunoko kintoa zan, lehenengo gorrikin jun zan, hemezortzi urte zeuzkala. Ta gero handik etorri zanen, ba ya kintak'e harrapau zuen ta Extremadura parte hori dana ibili zon, bai. Bai, ta oso gaizki gaiñea. Ez uyik, han oin ur asko emen dao baiña, ordun behintzat, ez zeon tantanik'e esaten zuen. Abanzatzen zijozela uye eskatzen men zien ta iñok ez emen zien uyik ematen. Halakoxe paraje exkaxa. Oin han'e ekarri men zuen uye, hemen bezelaxe. Baiño ordun garai hartan oso gaizki ibili zien. Oso gaizki. Gaixotuta gure anai hori. Ba, tifus. Ta arbolan [...] baten kalenturakin ez dakit zenbat denboran han ibili emen zan ta guri ez zigun ezer abixau.

4. Trukuman sasimedikua

- **Erref:** URR-033/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Trukuman sasimedikua oso famatua zen. Hark sendatu zuen aita enplastoen bidez. Medikuak ez zekien zer egin.</p>

Transkripzioa

- Kuranderok esan dezu, kurandero bat zeola.
- Bai ta harek eztarritik, gure amak esaten zon, nik ez... Umea nintzen ta ez naiz [...], hola, eztarik bi soplatak, holaxen duron, zillarrezko duroa ikusiko zendun? Holako bi soplata bota zittula eztarritik.
- Bota in zittun?
- Ta harek salbau. Berok eta ahon ez dakit zer jartzen zien eta hurak soltau zianen ba bueno, aitta hobetu.
- Ta kuranderok bazeuzken bere erremediok?
- Bai, bai, Trukuman oso famatue zan garai hartan. Gero hura ´re hil zan baiño, bai, oso, oso. Harek, zeakin, nik ez dakit ze enplasto, hortxe Goldenekoen amak eitten zion enplastok, eta beste belarren batzun uyak eta, haekin. Oin indizio bat ipiñi ta "ya está" baiña, antibiotikon bat eman ezkeo baiño, ordun ez penizilinaik eta ezer ez zeon.
- Ezer ez zeon, e? Baiño eongo zan kuranderoz aparte, eongo zan medikua, herriko medikua?
- Bai Don Joxe hori mediku ona zan hemen, hura. Gero Oñatibia, gero etorri zan. Baiño guk ordun hori gendukan, Don Jose Albisua. Albisu.
- Ta zein zeon hobe ikusita, medikua, edo kuranderoa?
- Ba, horrek ez zion zeaik hartzen, mediku horrek. Medikua ona zan, baiño ezin zion azertau hura zela kendu. Ta harek zijon bezin pronto esan zion. Zauzkala bi soplata ta haiek botatzen ez bazittun itto egingo zala.
- Eta nola ba zeuzken hor hoiek?
- Eztarriye itxi barrutik, bai. Barrua juteko zea eta arnasia hartzeko zea itxi, bai. Eta gero handik aurea, gero ondo [...].
- Ondo sendau zan?
- Ondo geatu zan gero, bai.

5. "Nazionalak" sartu zireneko estualdiak

- **Erref:** URR-033/007
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denboran, etxetik hurbil dagoen zubia bota zuten dinamitaz milizianoek ihesean. Etxera etorri zitzaizkien dinamitatzaileak, leherketa entzungo zutela esanez. Anaia aurrera joan zen "gorriekin". Milizianoek etxetik atera eta aurrera eraman nahi izan zituzten, baina Deskargako lehenengo baserrian geratu ziren, eta laster itzuli ziren etxera.</p>

Transkripzioa

- Ta aittau dittuzu lehenago, gerrako kontuk. Anaia nola egon zan kanpon, ta zuk nola bizi izan zendun gerrako garai hori? Nola gogoratzen dezu?
- Guk, hemen ez da ezer pasau. Hor goyan bi tiro bota zittuen, bai, eta gero, berriz, tiro horik bota ta hemen bi lagun edo hil zittuen.
- Herrin bertan?
- Bai, bai. Ta gero gerrea, hori, hasten ari zala, Nazionalak ba ete zetozen, ta Argixao bakizu nundik daon? Gure basarriya aurretik pasau zien, ta soldau ta danak, ezta? Eta han zubi haundi bat dago, Urretxu ta Legazpi dibiditzen dittuna, kamiñua, kamiñua baiño. Han jarri zittuen bonbak. Azpin

errekea dao. Zan, aspaldi ez naiz jun ni, pena ematen dit eta. Aspaldin jarri zittuen bonbak, eta horik, han bonbak ipiñi zittuenak jefek zian, hantxe gure basarrin goian bizi zian bi gizon. Bat zan Baskotako fatoria eta bestia, mozua zan. [...] Baskotakok, zuk ez dezu ezagutu, [...]. Eta harek esan zien gure amai eta etorritta, sapayan azpiyan jartzeko, ez zitzaten ezer´e pasauko. Tiro haundi bat bota behar zuela ta.

- Haiek abixun etorri zien?

- Bai, gure etxea etorri zian. Eta gu, ni, ahizpa ta ni, ba jun giñan han Benta. Zuk ez dezu ezautu han etxia, oin zea dao han, garajia edo ez dakit zer daon. Han Benta-etxe bat zan eta han bizi zian Goldenekok eta beste famili bat [...] Gero Eibarrea jun zian tabernia jarri zuen han ta. Gero, gero e? Ta amak esan zigun, umek txikik zeuzkien ta, "kasoiezue ume hoiei, erak etxea jaso pixkat ein arten". Gizon haiek jun zian ta gure anaya´re haikin jun zan, aurea, gorrikin. Eta gero ba, guri etorri zitzekun han, bi, hola, gu nexka koxkorak, gu biyok, bi ahizpa... Ahizpa ta ni.

- Baserrin zendetela etorri zitzaizuen bat?

- Guri ez, baiño han zeren andrai, gizona jun egin zitzaten andrai. Guk aurea jun behar gendula, gorrikin, "nada, nada, aquí tenemos el camión y fuera. Ahí adentro y adelante vosotras también". Ta hor andra batek esan zion, ba gurekin zeonak, pues zela jungo giñan ume haik danak eta, gizon danak han jun ziala, han ziala, junda. "Nada, nada, a fuera" . Ta bat, Goldeneko hori, pixkat frente jarri zan, ezetz. Ta holaxe, "si no" umia zaukan, Juan Mari ezagutzen dezu? Goldenekon, e, hori mutil koxkorra, urte beteko mutil koxkorra zeukan. "Si no sales, pun te voy a hacer" ta bota eingo zion gaiñea! Beharko erten! Ta halaxe kamiñon jun giñan aurea.

- Ta noa nahi zizuen eraman ba, aurrera?

- Ba, gorrikin. Haik Milizianok zian, gorritakok zian haik, han zebiltzenak. Ya azkeneko ta zean zen, hor Argixaotik ya tirok aitzen zian. Bazetozela Nazionalak, entenditzen? Eta gero, ba, jun egin behar ba gu´re aurea. Ta gu biden gindoazela kamiñon, hortxe, ba, Benta hori zan lekutik pixkat aurreatxon, kriston tirua. Guk atzea etorri nahi ta "ez", bueno ba, klaro ezin giñan etorri, ezta? Gure [...] Ta hala, Deskarga aldea, lehenengo basarriya zan ezkerreta, ta hangok, tiroa aittu zuen harek´e ta, ba gu han ikusi giñutzienen ba, zer pasatzen zan. Ta esan zuen iñok, lagatzeko sartzen haik aurea eraman nahi zuela ta. Ta halaxe hango aitta erten zun eta esan zien Miliziano horiei, familikok giñala ta lagatzeko han zeatik gure danak aurea junda ziala ta. Ta haretzek salbau giñuzen, hantxe geatu giñan gu. Haien, jun zianan andrak eta ahizpa ta ni.

- Ta Deskargako baserrin geau ziñeten ordun zuek?

- Bai, lehenengo basarrin, Deskarga bea, ta hantxe. Fermiñene zon izena. Bota in zuen gero. Eta gero handik ordubetera o hola, gure aitta ta ama ta erten emen zuen aber zer zea, eta ez guren, ez Bentan, Benta zan beste etxia, ez Telleri, ta iñun ez zeon iñorre. Ta, ze pasa ote zan. Ta gure aitta hori Deskarga aldea. Pozik ikusi gendun guk aitta bazatorrela gure billa ta esan gendion "baiña aitta zela? ez dakizu zer asko ze pasau dan, tirua", "aittu deu tirua, tiro haundi bat bota due eta... Ala! Oin etxea juteko esan digue Milizianok, ertetzeko esan". Han sapai azpin eoteko esan zienak "ya podéis venir". Baiña aitte larri aurea, zeatik militararak ya bertan zian. Ta hoixe izan zan hemengo zea.

6. Urretxun bederatzi pertsona hil matxinatuek

- **Erref:** URR-033/008
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Salbakonduktoa behar zuten herrira joan izateko. "Nazionalak" bederatzi lagun hil zituzten herrira sartu zirenean. Izendatu egiten ditu. Nazionalistak izateagatik hil zituzten. Senarrak bi gizon ikusi zituen Legazpi aldean bide bazterrean hilda.</p>

Transkripzioa

- Bai, eta gero ba kalea etortzeko gu, Ipiñarrieta [...] nun zan bakizu, ezta? Ba han salbokontuktoa eskatzen ziguen, Eibarren eitten zuen.
- A bai? Ta salbakonduktoa, hori nola eskatzen zuen?
- Salbakonduktoa hartu behar izaten gendun.
- Zer zan hori, salbakonduktoa?
- Ba, karnetan, "por ejemplo" e? Ba holakoxe bat. Ta gero ba, handik egun gutxitta sartu zian ta hemen beatzi lagun hil zittuen. Hok sartu zianen. Ba hemen Urretxun bertan Benantzio Eguren, gero sekretarion semia Belaustegi, Martin Zabaletanekoa hiru, Gabilondo lau, [...] Aranburu bost, beste bat Morenitana sei. Eta gero bestek hemengok zian, baiño oin ez naiz akordatzan ia oin zeintzuk zian bestek. Beatzi lagun hil zittuen.
- Eta nun hil zittuen, hemen, herrin bertan?
- Ez, iñok ez zittuen gehiago ikusi.
- Ez e? Ikusi're ez.
- Ezer ez. Erak jakingo due noa eramane zittuen edo ze in zien.
- Eta, eramane zittuenen ta, ikusi zuen nola eramaten zittuen?
- Hoixe ez dakit zela eramango zittuen. Horik gauen edo halakon baten eramango zittuen edo. Bat zan Benantzio Eguren hori, ba beste lanik ez zon eitten horrek, ehiz txakurra eukitzen zon, ta jaietan. Nazionalistak zian ba, horik. Ta horreatixek hil zittuen horik. Danak zian horik nazionalistak. Ta ordun nazionalistak gorrik baiño okerrago tratatzen zittuen, e? Bai, bai. Hoixe. Ba hoixe izan zan. Ta hura zea, oso gogorra izan zan beatzi lagun hemen hil zittuenen. Zeatik gizonak izan zian pake oso, iñokin ezertan sartu ez zian gizonak.
- Bai, e? Nazionalistak izateagatik?
- Nazionalistak zian, bai.
- "O sea que" egon zan pena momentu bat.
- Hombre, hoixe. Hola, gizonak hola eramane ta hiltzia? "Hombre". Ta hemen gehiaotan pasau zan. Gure anaiak behorrak eukitzen zittuen, asko gaiñea, ta jutene zian ikustea. Aizkorrin ibiltzen zian udan, ta erak bizikletan goizen zijoztela kamiño baztarren billau zittuen bi gizon hilda.
- Nun, Aizkorrin?
- Kamiñon, Legazpiko biden. Legazpiko biden, bai. Eta haik'e ba, Legazpikok ez zian. Beste nunbaitekok izanda, hortxe etorri, ta hil egin zittuen ta kitto.

7. Zapataria eta haren ondokoa balaz hil

- **Erref:** URR-033/010
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Bi lagun hil zituzten tiroz Urretxun gerra heldu zenean; haietako bat zapataria, zapatak konpontzen ari zela. Haren ondoan gertatu zen beste lagun bat ere hil zuten.

8. Auzoko baserrien izenak

- **Erref:** URR-033/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoko baserriak izendatzen ditu. Orain gehienak galduta daude. Oso aldatuta dago egun auzoa.

9. Bizikletan kalera eta Antzuolara esnea edo arto-irina garraiatuz

- **Erref:** URR-033/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Baserrian denetik hartzen zen, baina dirua batez ere esnea salduta lortzen zuten. Bizikletan eramaten zuen esnea kalera. Antzuolara ere bizikletan joaten zen taloa egiteko arto-irin bila. Oso arto-irin ona egiten omen zuten. Behorrarekin ere joan izan zen.</p>

10. Santa Lutziatako feria eta bazkaria

- **Erref:** URR-033/018
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Lutziatan 15 bat gonbidatu izaten zituzten etxean. Egun horretako bazkaria nolakoa izaten zen kontatzen du. Flana nola egiten zuen. Gizonezkoak feriara etortzen ziren.

11. Urretxun harrapatutako behorra Mungian azaldu

- **Erref:** URR-033/019

- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:31:42. **Bukatu:** 00:35:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Etxeko gizonak feriara joaten ziren kanpora: Agurain, Abadiño, Mungia... Behor asko hazten zuten etxean. Behin bi behor gazte harrapatu zizkieten. Gerora jakin zuten horietako bat Mungian zegoela. Jabearengana jo eta etxera ekarri ahal izan zuten arazo handirik gabe. Bestea ere berreskuratu zuten. Ijitoak izan ziren nonbait lapurrak.

12. Ahoko soinua jo eta dantzan

- **Erref:** URR-033/021
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:36:19. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Kaminpen (beren baserrian) ere erromeria egiten zen Santa Lutzia egunean, ahoko soinua jo eta dantza antolatzen zen. Aitak eta bi anaiak zekiten jotzen.

13. Ezkontzak baserrian otordu, musika eta guzti

- **Erref:** URR-033/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:39:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Bost ezkontza egin ziren gutxienez beren baserrian. Ganbaran egiten zen otordua. Menua zelakoa izan ohi zen kontatzen du. Musika ere bertan, sasoi, danbor eta guzti. Trenetik agur egin omen zien lagunaren istorioa.</p>

14. Ezkontza bazkari menua

- **Erref:** URR-033/024
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:40:20. **Bukatu:** 00:41:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Eztei-bazkarian jan ohi zena zerrendatzen du. Arkumea nahikoa izaten zen beti. Aita oso dantzari ona zen. Soinu-joleak.

15. Erromerietan pozik

- **Erref:** URR-033/025
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:41:52. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromerietara asko joaten ziren. San Joan eta Antigua ziren berarentzat onenak. Pozik bizi ziren.

16. Santa Anastasia jaiak eta Urretxuko jatetxeak

- **Erref:** URR-033/026
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Santa Anastasi egunean zezenak egoten ziren eta festa ederrak egiten ziren. Beraiek ez ziren tabernetara asko joaten. Orduko jatetxeen izenak esaten ditu.

17. Dotrina erdaraz, nahiz eta erdararik jakin ez

- **Erref:** URR-033/028
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:45:23. **Bukatu:** 00:47:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojatan ibili zen eskolan. Mojak "deabrua baino gaiztoagoak" omen ziren. Dotrina euskaraz ikasi zuen lehendabizi eta gero erdarazkoa ipini zioten. Ez zekien erdararik eta ezin izan zuen aurrera egin.

18. Erdaraz berandu ikasi zuten

- **Erref:** URR-033/030
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:48:42. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gurasoek ez zekiten erdararik eta anai-arrebek ere ez. Gero auzoan "Poblado Aparicio" egin zutenean ia denak erdaldunak etorri ziren eta harrezkero joan ziren erdaraz ikasten.

19. Bapore-makinen ikatz-biltegia etxe ondoan

- **Erref:** URR-033/032
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:52:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Patricio Echeverriak beste karril bat ipini zuen Zumarragako geltokitik bere lantegira merkantzia eramateko. Beren etxe ondoan zegoen bapore-makinen ikatz-biltegia.

20. Trenak etxeko idi pare harrapatu

- **Erref:** URR-033/034
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Norteko trenbideaz gain, Urola eta Vasco-Navarro-a zeuden herrian. Azken honek behin idi pare harrapatu zion aitari gurdi eta guzti. Pozik berari ezer gertatu ez zitzaionean.

21. Urolako trenean Zumaiara ilobekin

- **Erref:** URR-033/036
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:57:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Pena hartu zuen Urolako trena kendu zutenean. Askotan joaten zen Zumaiara ilobekin txikiak zirenean. Oraindik asko akordatzen omen dira.

22. Etorkinen hasierak

- **Erref:** URR-033/038
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:57:52. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Etorkin asko urrutiko baserri eta txaboletan hasi ziren bizitzen. Ezer gabe

etorri zen Extremadurako familia baten kasua. Laborantzatik bakarrik ez omen dago bizimodu onik. Orain ur gainera bitsetan bizi gara.

23. Erdara eta etorkinak

- **Erref:** URR-033/039
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:01:06. **Bukatu:** 01:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Euskaraz ez dela egin behar esan omen zien emakume nafar batek lagun batzuei. Berari esan izan balio lepora salto egingo zion. Harreman ona izan du, oro har, erdaldunekin. Etorkinei eta erdarari buruzko gogoetak.

24. Baserriko lan guztiak egin ditu

- **Erref:** URR-033/041
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:07:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Ez du kanpoan lanik egin. Baserrian, denetik tokatu zaio. Artoa nola erein eta jorratzen zuten. Artzain lanak ere denak egin ditu. Behiak jaitsi, osterak, ez.

25. Zazpi hilabeteko egon arte medikurik ez

- **Erref:** URR-033/043
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:08:48. **Bukatu:** 01:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Zazpi hilabeteko egon arte ez zen medikuarengana joan. Gero emagina arduratzen zen. Etxean eduki zituen hiru seme-alabak.

26. Sakamantekasa eta katu beltza

- **Erref:** URR-033/046
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:15:27. **Bukatu:** 01:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sakamantekasa-rekin eta katu beltzarekin beldurtzen zituzten. Trenbidea zuten hurbil eta kontuz ibili behar zuten.

Plazaola Murua, Margarita | [ahotsak.eus](#) Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com